

EUSKARAREN GUTXIENEOAK ZEHAZTEKO ADIERAZPENA



Kontseilua euskarak garapen osoa izatea helburu duten gizarte-erakunde ugariaren bilgunea da. Batera aritzeko urratsa egin zuten euskararen gizarte-erakundeek, nahiz eta jatorri, irizti eta lan-eremu desberdinetakoak baziren ere, eta horretan datza Kontseiluaren indarra.

Kontseiluak euskalgintzaren muina eratzen du eta bere baitako batasun horretatik zabalitzen dio euskararen egoera normalizatzeko beharrezko lankidetzadynamika euskal gizarte anitz eta osoari.

Euskararen normalizazio-prozesua areagotzea da Kontseiluaren eginkizuna. Horretarako bi jardunbide nagusi lantzen ditu: euskalgintzako erakundeen artean kohesioa bultzatzea eta indarrak artikulatzea, batetik, eta gizarte-eragileak, indar ekonomikoak eta alderdi politikoak hizkuntza-normalizazioan inplikaraztea, bestetik.

Orain arte urte luzetan euskararen alde lan egin dugun bezala, zabaldu den egoera honetan itxaropentsu agertu nahi dugu. Halere, horrek besterik gabe ez du ondorio praktikorik sortzen, eta horregatik uste dugu aldaketa-garai honetan ere gure ekarpena beharrezkoa dela.

Elkarrizketan, giza eskubideetan zein bizikidetzan oinarritutako etorkizunaren aldeko ahaleginetan pausoak emateko dugu konpromiso trinkoa adierazi nahi dugu eta bilakaera horretan norbanakook eta gizarte-eragileok dagokigun protagonismoa izan behar dugulakoan gaude.

Halere, kezka bizi dugu egungo egoera. Azken hilabeteotan mota askotako erpinak dituen gatazkarekin amaitzeko urratsak ematen ari dira, baina tamalez, euskararen gaia ez dago agendetan behar bezala txertatua. Ezer gutxi ari dira jasotzen euskaren gutxienekoen. Euskalgintzak badu zer ekarria arlo horretan, izan ere, euskalgintzak gaur egungo egoerak euskararen normalizazioari ezartzen dizkion mugen kontzientzia duen neurrian, eztabaida orokorretan ekarpena egiteko eskubidea eta beharra ditu. Horrela, eragile guztiek garbi izan behar lukete normalizaziorako sortuko den oinarri berriak ezinbestez izan behar duela kontuan euskararen normalizazioa.

Kezkaturik baina erantzukizunez jokatzeko asmoa dugu, garbi ikusten baitugu Euskal Herrian sortu den une politikoa oso garrantzitsua izango dela euskarak gizartean dagokion lekua eskura dezan.

Mendeetan zehar euskaldunok hizkuntza gutxitzea eta -gutxiagotzea bizi behar izan dugu. Egia da, bai, azken hamarkadetan aurrerapausoak eman direla, eta euskalgintzak inbertitutako esfortzuak etekinak eman dituela, baina egungo erritmoek ez dutela epe labur edota ertainean gure hizkuntza normalizatu ere egia da.

Gutxiagotze-prozesu bortitzak pairatu izan ditu eta egun ere pairatzen ditu gure komunitateak bere lurraldean. Alta, prozesu horiek ez dira ausazkoak izan. Hizkuntza-normalizazioaren kontra hartutako jardunak estatu-gaiaren dimentsioa hartu izan du historikoki, eta horretarako azken hamarkadetan

gure hizkuntza-komunitateri eragindako kaltea besterik ez dugu ikusi behar.

Are gehiago, beste zenbaitetan, euskalgintzak berak eraso zuzenak pairatu behar izan ditu. Hainbatetan ikusi behar izan ditugu herrigintzatik sortutako hainbat proiektu bortxaren bidez ixten, gure lana baldintzatzen, bai eta eragozten ere.

Gaur egun, Estatuak, eta beste zenbaitek ere, indarrean jarritako politiken ondorioz, ez dago euskaraz bizitzerik. Estatuak egiturazko galga jartzen diote gure hizkuntzaren, eta ondorioz, gure herriaren normalizazioari.

Halaber, gogoan izan behar dugu egungo euskararen ezagutza-tasek ez gaituztela hizkuntzaren erabilera normalizatura eramango, eta euskaldunok euskararekiko leialtasuna agertu arren, euskaldunen proportzioa bizkorki handitu behar da euskaraz bizi ahal izateko. Txillardegik egiaztatu bezala, gainerako faktoreak alde daudela ere, %50eko erabilera lortzeko nahitaezkoa da ezagutza-tasa %70ekoa baino handiagoa izatea.

Azken finean, orube berri batez mintzo bagara, herri honen eskubide indibidual eta kolektiboen bermeak presente egon behar du. Horrela, eskubideen artean dauden hizkuntza-eskubide indibidual eta kolektiboak zutabeetako bat izan beharko dira; eta norbanakoaren eta hizkuntza-komunitatearen hizkuntza-eskubideen urraketeki amaiera emango zaiela aurreikusi behar dugu.

Gogoan izan behar dugu hizkuntza guztiak direla nortasun kolektibo baten adierazpen. Are gehiago, hizkuntza bakoitza kolektiboki eraikitako errealitatea da, eta komunitate horren partaide bakoitzaren tresna bihurtzen da identitatearen, kohesioaren, identifikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen mailan. Ondorioz, hizkuntza-komunitate orok eskubidea du baliabide propioak antolatu eta kudeatzeko, gi-

zarte-funtzio guztietan bere hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko helburuarekin.

Hortaz, hizkuntzen arteko gatazketan botere-gatazkek dau-
de. Are gehiago, batzuek erabakitzen dute noiz, norekin eta
nola erabil edo ikas dezakegun guk geure hizkuntza. Batzuek,
boterea erabiliz, erabakitzen dute gure herriari nola deitu
behar diogun. Ondorioz, une honetan ez dugu baldintza nahi-
korik normalizazio-prozesua burutzeko.



Arretaz aztertu izan ditugu gurea bezalako beste hizkuntza
batzuen berreskurapen-prozesuak eta argi ondorioztatu hiz-
kuntzaren eta boterearen arteko harremanak. Are gehiago, hiz-
kuntza aukera ekonomikoa da Estatuak lehenesten duen hiz-
kuntzaz mintzo direnentzat. Horrela, hizkuntza-aniztasunaren
kudeaketa desgokiak giza eskubideen urraketa sistematikoak
dakartza, eta ondorioz, hizkuntzaren eta boterearen arteko lo-
tura trinkotzen da.

Gatazken konponbidean hizkuntzari zentraltasuna edota erreferentzialtasuna emateak ondorio hobekak ekarriko ditu, eta hori egiaztatu ahal izan da nola antzinaroan hala historia garaikidean zehar. Hain zuzen ere, horrexegatik jarri behar eta nahi dugu euskararen, Euskal Herriko berezko hizkuntzaren auzia agenda guztietan, garai berriari begira egoki koka dadin.

Halere, jakin badakigu, gatazkaren konponbideak berak ez duela gure hizkuntzaren berreskurapen osoa ekarriko. Euskararen normalizazioaren eremuan eragile guztiok agertu behar dugu konpromisoa eta guztiok eman behar ditugu urratsak, inplikazio errealik gabe ezer ez baita lortzen.

Hori horrela izanik ere, euskaraz bizitzeko baldintzak bermatzea ere bada mahai gaineratu beharreko elementua. Eta BIZI hizki larriz diogu. Euskaraz bizi nahi dugu, euskaraz ez bada, ez delako bizitzea guretzat. Euskaraz bizi nahi dugu, eskubidezkoa delako; justiziazkoa delako. Euskaraz bizi nahi dugu betidanik bizi izan delako lurralde hauetan euskaraz. Euskaraz bizi nahi dugu, euskaraz hitz eginez etorkizuna eraikitzen ari garelako.

Ondorioz,

Gutxiagotze prozesuari amaiera eman behar zaio eta urte luzeetan pairatutako egoera irauli. Horretarako, joko zelai berri bat behar dugu eta bertan jokatzeko jokamolde eta oinarri berriak jarri.

Kontseiluaren ustez ezinbestez bermatu beharreko oinarriak hauexek dira:

1. Kanpo esku-hartzerik gabeko hizkuntza-politikarako eskubidea

Hizkuntza-komunitateak eskubidea du bere hizkuntza normalizatzeko politika definitzeko eta garatzeko inolako kanpo esku-hartzerik gabe. Gaur egun, hizkuntza-politika eragingarria abian jartzeko oztopoak daude. Euskararen hizkuntza-komunitatetik

kanpoko esku-hartzeak eta erabakimenak baliogabetu egingo luke. Ikusi besterik ez dago hizkuntzaren normalizazioari begirako erabaki ausartek zer-nolako debekuak izan dituzten.



2. Estatus egokia

Gure herriaren normalizaziora iristeko bake-bidean aterabide demokratikoaren zutabeak zehazterakoan gure hizkuntzak estatus juridikoa beharko du izan.

Berezkoa

Euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza eta normalizatu beharrekoa.

Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa izendapenekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia.

Berezko hizkuntzaren kontzeptua hizkuntzaren beraren genesiaren eta garapenaren zutabeetan oinarritzen da, bai sozialean eta antropologikoan, hizkuntza- eta kultu-

ra-komunitatearen kontzientzia duen komunitatea, bai lurraldekakoan, komunitate horren lurraldea, bai eta historikoan ere, hizkuntza horrek historian zehar izandako garapena.

Ofiziala

Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza ofizialtzat erabilia izan dadin bere lurraldearen barruan. Hartara, gure hizkuntzaren berreskurapena ahalbidetuko duen estatus juridiko bakarra ofizialtasuna da.

Ofizialtasuna ez da hizkuntzaren berezko ezaugarria, hizkuntza bati esleitzen zaion estatusa baizik. Euskarak ofiziala behar du izan bere lurralde osoan, eta lau dimentsio hartuko dira kontuan: politikoa, lurraldetasuna, dimentsio kolektiboa eta objektiboa.

Horrela, euskarari ofizialtasun statusa esleitzeak ondorio juridikoak eragiteaz gain, babes eta berme juridikoak ematen dizkio euskaraz bizi nahi duen herritarri.

Lehentasunezkoa

Egoera gutxiagotuan dagoen hizkuntza batek izan beharreko nahitaezko ezaugarria da. Historian zehar izandako desorekak zuzentzeko eta euskaraz bizitzea errealitate bihurtzeko euskarak erabilera normalizatua eta lehentasunezkoa izan behar du. Lehentasunezko hizkuntza izendatzeak euskararen aldeko politikak ahalbidetzeko gaitasuna eskaintzen du: lurralde guztietako instituzioetan, zerbitzu publikoetan, hedabideetan, irakaskuntzan, etab.

Ezagutu beharrekoa

Ezagutza unibertsalizatzea nahitaezkoa da hizkuntzaren berreskurapen-prozesua bermatzeko. Euskara ezagutu beharrak bermatuko ditu herritarren arteko bizikidetzaz

eta euskaraz bizitzeko hautua egiten duten herritarren nahia.

Horrela, ezagutza unibertsalizatzeak ondorio positiboak eragingo ditu, besteak beste, euskaraz bizitzeko, hizkuntza hautua bermatzeko, administrazio publikoen eginkizunak betetzeko, euskara gutxiagotzen duten hizkuntzajarrerekin amaitzeko, etab.

Kontseilua osatzen dugunok, egoera hau gainditu eta euskararen normalizazioa posible egingo duen beste egoera bat eraiki nahi dugu. Horregatik, eginkizun horretan ahaleginean ari direnekin elkartasunez eta eskuzabaltasunez elkarlana burutzeko konpromiso publikoa hartu nahi dugu. Konpromisoak areagotzea beharrezkoa den garai honetan ez dugu guk huts egingo.



Edozein normalizazio-prozesu, hizkuntzarena edota bestelakoa, prozesu politikoa eta soziala da, eta horregatik lehen aipatutako bi eremu horietara zabaldu nahi dugu gure eskaera:

- Eragile politiko, sozial, sindikal eta ekonomiko guztiei dei zuzena egin nahi diegu, zeinek bere eremuan, euskaraz bizitzeko baldintzak erdiestearen ardurak har ditzan.

Ardura denona da, guk geurea ez dugu saihestu nahi, eta horrexegatik beste eragileei erantzukizunari muzinik egin gabe joka dezatela eskatu nahi diegu.

- Halaber, herri-gogo indartsua ere nahitaezkoa dela uste dugu. Herri-gogo indartsu hori erantzukizunak eskatzeko eta jarrerak baldintzatzeko gai bihurtu behar dugu.

Hartara, ozen aldarrikatu nahi dugu prest gaudela geure hizkuntzaren berreskurapena, euskaraz bizitzea ahalbidetuko duten baldintza politikoak, sozialak, ekonomikoak eta juridikoak eskuratzeko geure indarrak partekatzeko. Argi dugu geure hizkuntzaren berreskurapena lortzeko, euskaraz bizi ahal izateko eta hori guztia ahalbidetuko duten baldintzak eskuratzeko denon beharra dagoela. Oraingo aukera, aukera ona, benetakoa izatea nahi dugu.

Andoainen, 2012ko otsailean.